

Bihurgune maldatsuak

Kritika

Musika

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Zuzendaria: Josep Caballe Domenech. **Abesbatza:** Andra Mari **Egitaraia:** Johannes Brahmsen *Requiema*. **Lekua:** Donostiako Kursaal auditoriuma. **Eguna:** azaroak 7.

Arkaitz Mendoza

Aldapaz jositako mendikate zorrotza izan du Errenteriako Andra Mari abesbatzak Erromantizismoko obra sendoenetariko bat jorratzean. Johannes Brahmsen *Requiema* ordubete pasatxoan gozatu eta sufritu daitekeen bihurtune pilaketa da, denak segidan, arnasestuka, fisikoki indarberitzeko astirik gabeko maldetan barneratuta. Zazpi ton-tor, zazpi izerdi tanta, zazpi hasperen. Hasiera bortitza izan zuen abesbatzak, lehen aldapak ziurtasun osoz igoz, soinu biribilez gailunduz, sendo, konfiantza handiz.

Josep Caballe zuzendaria erne izan zuen ahots taldeak, orkestra aske eta abesbatza zuhur azalduz. Eskuinerantz bira egin eta bigarren maldan erritmoa dinbil-danbala aritu zen. Tinbala zen ardatz, abesbatza zuzendariari begira baina tinbala entzun gabe. Hor islatu zen oztopoa, tinbalaren taupada musikari ororen gidari izan beharrean, bakar-lari gisa azalduz.

Ezkerrerantz bihurtune txikia eta hirugarren tontorra begi bistan izan zuen Andra Mari, partaide bereziarekin: Jose Antonio Lopez baritonoa. Ahots epela, dotorea, Brahmsen musikak adierazten duen osotasunaren adibide. Abesbatzak maldatsu sentitu zuen azkeneko igoera hau, nekea nabari, ibilaldi erdian edonork pairatu dezakeen beherraldi lazarria jasanez.

Laugarren hasperenean aho-tsak zorrotz agertu ziren, tenor-rak tiraka, sopranoak agudoe-tan larri, eta abesbatza kontraltoen indarrean zintzilik. Vanessa Goikoetxea sopranoak tinbre koloretsuko kantatze era du, sentikorra, zuzena, entzuleari ziztu bizian iristen zaion horietakoa. Bosgarren txatata txukuna izan zen, seigarrenean kontraltoek burututako hasiera bikainaren aurrerapen izanik. Ahots taldea berriz ere gihartsuegi obraren fuga pasarteetan, lasaitasunetik tentsiora eraldatuz. Orkestra kantuaeren morroi, betebeharra zuzen landuz, aparteko bereizgarritasunik adierazi ez zuen zuzendari baten batuta-pean.


Euskal kultura zabaltzeko solasaldi birtualak egingo dituzte atzerriko ikasleekin

Etxepare Institutuaren eta Mintzaneten bidez, ikasleek aukeratutako sortzaileekin egingo dituzte elkarrizketak

Araitz Muguruza Donostia

Mundu osoan zehar euskara eta euskal kultura ikasten ari diren 34 unibertsitatetako ikasleek aukera izango dute euskal sortzaileak ezagutzeko, solasaldien bidez. Birtualak izango dira, eta gelan bertan aukeratuko dute zein artistekin egingo dituzten elkarrizketak. Etxepare Institutuak eta Mintzanetek elkarrekin abian jarri duten proiektua da, atzo sinatu zuten hitzarmena bi eragileek, baita lehenengo proba egin ere.

Proiektuak helburu argia duela adierazi du Maria Jose Olaziregi Etxepare institutuko sustapen eta eratzeko zuzendaria: «Artistak gerturatu nahi ditugu nazioartean daukagun sail horretara, eta, era berean, nazioartean euskal kulturaren zabalkundea egin nahi dugu». Proiektua malgua, gertuko eta gaurkotua dela gaineratu du, horretarako, teknologiak beren alde ipini eta ematen dizkieten erraztasunak aprobetxatuta.



Eider Rodriguez idazlea izan da solasaldiaren probako gonbidatua. ETXEPARE

Espero dute hilerio elkarrizketa bat egitea. Gela bakoitzak aukeratuko du norekin hitz egin, eta haren inguruko lanketa bat egingo dute ikasgelan. «Tresna pedagogikoa» dela nabarmendu nahi izan du Olaziregi. Solasaldien inguruko bideoak sareratu dituztela ere, jakinarazi du.

Ekimenaren aurkezpenean solasaldiek hartuko zuten itxuraren proba egin zuten, atzo. Poloniako Adam Mickiewicz unibertsitatean euskara ikasten ari ziren sei lagun poloniarrek Eider Rodriguez idazleari hainbat galdera egin zizkieten, idazlearen

Katu jendea liburua hizpide hartuta. Amaia Dones da hango irakaslea, 50 ikasle ditu, eta urtean 540 eskola ordu ematen dituzte. Rodriguezek ere egin zizkien galderak ikasleei.

Gertuago ere erabilgarri

Solasaldiak sortzaileekin egingo dituzte, baina Ritxi Lizartza Mintzanet plataformako arduradunak gogoratu du «edonork» erabil dezakeela ataria. Nazioartekortzeko jauzia orain emanagatik ere, hainbat arrazoigatik euskara praktikatu ezin duten euskal herritarrentzat ere bada.

Pertsonaia

Alberto Schommer Argazkilari pausatua


Alberto Schommer (Gasteiz, 1928) ez da kameraren kliskagailuari erraz zapaltzen dioten horietakoa. Bere argazkiak ez dira kasualitatearen ondorio, ondo baino hobeto hausnartutako prozesu baten emaitza baizik. Mende erditik gora daramatza argazkiak egiten, eta egungo teknologiak argazkiak egitea erraztu badu ere, ez du uste edonork argazkilari izan daitekeenik: «Argazkilaritza ez da hutsala eta arina, eta ezta ere erraz egin daitekeen zerbait». Atzo, Espainiako Argazkilaritza Sari Nazionala eman zioten Schommerri, «etenik gabe eta 50 urtez baino gehiagoz argazkilari gisa egin duen ibilbideagatik».

Saria pozez hartu du gasteiztarrek: «Hauxe da jaso nezakeen berririk garrantzitsuen eta

ederrena. Bizitzan behin bakkirik gertatzen den zerbait da». Dena den, askoren ustez berandu heldu den berria dela aipatu du: «Ez dakit zeintzuk izan diren hainbeste urtetan saria ez emateko arrazoiak. Lagun ditudan argazkilari askok egiten duten galdera da hori».

Berriki zendu den emazteari eskaini dio saria, eta abuztuan hil zen Oriol Maspons argazkilaria ere izan du gogoan eskerrak ematerakoan. «Masponsekin injustizia itzela egin delakoan nago. Pena da hark sari hau jaso ez izana. Iruditzen zait ez direla garai hartako hainbeste argazkilari geratzen».

Hurbileko historiaren lekuko da Schommer, eta epaileek, hain zuzen ere, gizartearen al-daketa sozialaren eta kulturalaren lekuko dela nabarmendu



dute. Bestetik, gai guztiak jorratu izana eta argazkilaritza gartzten eta berritzen lagundu izana goraiatu dute.

Argazkilaritza digitalaren boomaren garaian argazkilaritza pausatua eta sentitua defendatzen jarraitzen du, eta argazkiak egitea kliskagailuari eragitea baino zerbait gehiago dela dio: «Kliskatzerakoan beharrezkoa da bizitasuna eta talentu izugarria izatea, eta emozioz beteta egotea». Izan ere, argazki bakoitza egin aurretik lortuko duen emaitza ondotxo baitaki Schommerrek. ■ ELIXABET EPELDE

→ Laburrak

26.470 lagunek bisitatu dute Beldurrezko Astea

ZINEMA > Iaz baino lagun gehiago gerturatu dira Beldurrezko eta Fantasiako Donostiako Zinema astera, 26.470 bisitari guztira. Horietatik 11.124 zinema proiektioetara joan dira, eta gainerako jardueretara 15.346 lagun. Horregatik bide beretik jarraituko dutela adierazi dute zinema astearen antolakuntzako arduradunek.

Jesus Etxebarriaren irudiak hiru dimentsiotan

ARGAZKIGINTZA > XX. mende hasierako gizartea erretratatu zuen Jesus Etxebarria bilbotarrak. Argazki estereokopikoak egiten zituen, eta haietariko 14 jarri dituzte orain Guggenheim museoa. Bisitariak betaurreko berezi batzuk jantzita argazkiak hiru dimentsiotan ikusi ahalko ditu. Bilbon, Parisen eta Londresen harturiko irudiak, tartean.



Jesus Etxebarriaren erakusketa. ARP

Amparo Rivelles aktorea hil da

ZINEMA > Amparo Rivelles aktorea hil da 88 urte zituela, Madril. Han jaio zen, 1925ean, eta 13 urterekin hasi zen antzerkigintzan, eta antzerkia eginez erretiratu zen, 81 urterekin. Bitarte horretan, hala ere, zinemaren ere egin zituen lan batzuk. Sari ugari jaso zituen, besteak beste, Espainiako Antzerkigintzako Sari Nazionala, 1996an.

Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoak, 50 urte

MUSIKA > Akordeoiaren Bilboko Orkestra Sinfonikoak 50 urte beteko ditu aurten, eta hori ospatzeko *Bilbo bere hauspo onenekin* izeneko emanaldia eskainiko dute, igandean. Arriaga antzokian izango da kontzertua, 19:00etan. Orkestraren zuzendaria Amagoia Loroño da, eta haren aitak, Josu Loroñok, konposatutako piezak joko dituzte, besteak beste.